



Gure Ikastetxearen historia.

1878ko otsailaren 25ean, Donostiako geltokian zeuden bidaiari eta kuxkuxeroek ikusi ahal izan zituzten Paris-Madril posta trenean zetozen abitu ezezaguneko fraide batzuk. Haietariko bi trenetik jaitsi ziren eta bidaian jarraitzen zuten beste lauri agur egin zieten. Nasan geratu zirenetariko bat Anaidiaren Nagusi Orokorra zen, Madrilerla zihoazen beste lau anaia frantsesei haraino lagundu nahi izan ziena. Hauek Madrilerantz zihoazen Espainian sortutako lehen La Salle ikastetxera zuzentzera.

Zazpi urte beranduago, 1885ean, baziren 22 ikastetxe Anaidiak zuzendutakoak, horietariko bi Bilbotik hurbil, ezagunak zaizkigun bi herrietan: Castro Urdiales eta Isla.

Data honetan Gabriel M^a de Ybarra jaunak, semea Frantzian Anaidiaren ikasle izan zuenak, lehen ahaleginak egiten ditu Anaidia Deustura, Bilbo ondoko herri txikira, ekartzeko asmoz. Eskaintza tentagarria zen: eskolaren finantziazioa segurtatua, egoera oneko etxe bat, herria ideiarene aldeko... Anaidiak onartu zuten eta La Salle Deustura ekartzeko egitasmoa errealitate bihurtu zen.

1887ko abuztuaren 20an, Madrildik etorritako hiru Anai Bilboko geltokiraino heldu eta Deustura abiatu ziren. Lanean arituko diren eraikinak hiru gela, patioa, lorategia eta Anaiantzako etxebizitza. Eraikina Ybarratarren jabegoa zen eta 1885eko koleraren izurrite garaian ospitalearenak egin zituen. Gaur egungo Anaien Elkartearen (Madariaga) beheko parte da etxe hartatik geratzen den aztarna. 1887ko irailaren 19an izan zen **ESCUELA NUESTRA SEÑORA DEL ROSARIO** izena hartuko duen ikastetxearen inaugurazioa. Han agertu ziren 3 anaiak, izena eman zuten 185 mutiko, Deustuko agintariak, Ybarra familia eta nekazaritza utzi eta itsasadarraren inguruan sortzen ari den industrian gero eta sartuago dagoen herriko jende asko.

Ernesto Anaia, frantsesa, izan zen lehen zuzendaria, eta bere eginkizuna hamar urtez bete zuen eta zerrendetan agertzen diren lehenengo bost ikasle hauexek dira: Gregorio Bilbao (11 urte), Felipe Larrondo (8 urte), José Llona (8 urte), Ignacio Llona (6 urte) eta Ramón Aldecoa (8 urte).

Hasieratik Ybarra familiak Ikastetxearekin izan duen loturak gaur egun ere badirau. Aldi batez, finantziario eta lan kostu guztiak bere gain hartu zituen. Epe hori pasatu ondoren, bere laguntza eta adiskidetasunari eutsi dio *Fundación Escuela Nuestra Señora del Rosario* fundazioaren bitartez. Kiroldegia eraikitzeko izandako lankidetzak horren froga da.

Anaiak Deustuan bizi zirela, Fernando de Ybarra jaunak, Deustuko ikastetxearen fundatzailearen semeak, zuzendutako San Vicente de Paul-eko Patronatoak Iturribiden ematen ziren gaueko klaseetarako beren lankidetzak eskatu zien Anaiei. Gurdi batek arratsaldero bi anai hartu eta Iturribidera eramaten zituen eta han, bi orduz, 150 langile gazteri klase ematen zieten. Lan honek sortutako interesak mutikoentzako eskola bat

sortzeko asmoa piztu zuen eta horrelako gertatu zen 1888an, **ESCUELA DEL PATRONATO** izenaz sortu zena. Ikastetxe honek bere ateak 1974an itxi zituen.

Bitartean, Deustuko ikastetxeak bere ibilbidea jarraitzen zuen. Lehen ikasturtearen amaieran ikasleei “azterketa publikoa”, guraso eta agintarien aurrean, egin zitzairen. Dirudienez, arrakastatsua izan zen. Egoitzari estilo neogotiko ingelesa zuen kapera gehitu zitzaion, Arrosarioko Ama Birjinari eskainia. Kapera hau duela 12 urte bota zen; izan ere, 15 urtez erabili gabe egon ondoren, jausteko arriskua zeukan. Berau galtzeak Ikastetxearentzat galera handia izan da, ikuspegi artistikotik ez ezik, ondasun espiritualetik ere. Dena den, Enekuritik datorren errepideko tunelak egiteak bera botatzea eskatuko zukeen. Oroigarri gisa, aurrealdeko beheko partea gorde da.

Eskola zabaldu eta handi bi urtera, beste bi gela eta marrazkigintzarako areto eder bat, delineatzaileak prestatzeko, gehitu zitzaizkion, azken hauetariko asko inguruko enpresek kontratatzen zituztelarik. Kroniken arabera, 1893an Chicagon eginiko 1. Mundu Erakusketan hauen marrazki batzuk erakutsi zituzten eta zilarrezko domina irabazi zuten. 1900ean, berrikuntza bat jazo zen. Deustuko bigarren zuzendaria, Abdasius anaia, zendu zen, eta bere ordezkari gisa Fausto Luis Anaia izendatu zuten, espainiar lehen zuzendaria.

Egin dezagun atzera urte batzuetan, azkenean, Deustuko ikastetxearekin bat egin zuen beste ikastetxe baten sorreraz hitz egiteko: **SANTIAGO APÓSTOL**, alegia. 1893an, Anaiek ordaindu beharreko ikastetxe bat zabaltzeko erabakia hartu zuten. Sorrera apala izan zen, Marques del Puerto kaleko bi solairutan ireki baitzen. Hasieran, 6 ikasle eta 6 anaia zeuden, merkataritza arloko ikasketak egiteko. Ikasturte amaieran, ikasle kopurua 130ekoa zen, horietariko 12 barneko ikasleak. Leku estuak Rodríguez Arias kalera joatera behartu zituen, eta hemendik, 1900, La Salve aldera, Olimpo izenaz ezagutzen zen leku batera, behar bada gaurko La Salveko zubitik hurbil. Lekuak ez zirudien oso egokia eta erdibitu zen. Barnetegia Algortara eramane zuten, **COLEGIO HISPANO FRANCES DEL APÓSTOL SANTIAGO** izenarekin, hasieran eta handik urtebete batera Neguri etorbidera, 12. zenbakian. Kanpoko ikasleek Bilbon jarraitu zuten Errekalde Zumardian, 1. zenbakian. Konponbide honek ez zuen inor konbentzitzen eta 1909an Licenciado Poza kaleko orubea erosi zuten, geroago, 1954ra arte, egingo diren beste erosketekin batera, Santiago Apóstol ikastetxe ezaguna eraikitzeko erabiliko direnak. 1910-1911 ikasturte hasieran, Batxilergoa ezarri zen, ikastetxean lehendik ematen ziren lehen eta merkataritza eskolei gehitu zitzaiena. Deustuko ikastetxeak une larri bat pairatu zuen 1912 oso argi ez dauden arrazoi batzuk direla medio. Krisialdia, osteria, joan zen eta bere ibilbide arruntean jarraitu zuen. 1925eko urtarrilaren 1ean, Nuestra Señora del Rosario ikastetxea Deustuko udalerriko eskola izatetik Bilboko udalerriko Deustua auzoko eskola izatera pasatu zen; izan ere, data honetan Bilbok Deustua bereganatu zuen. 1933an, eta egoera politiko larri batean, Ybarra familiak Kiroldegiaren ondoan dagoen eraikina gehitu zion eskolari, Ikastetxearen baliabideak handituz.

Garai honetan ezin dugu alboratu Deustuko eskolak saildu batekin eta dohatsu batekin izan zituen harremanak. Alde batetik, Done Cirilo Beltrán, Salletar Anaia, 1909an Ikastetxeko irakaslea izan zen, 1934an, Turonen (Asturiasen) martiri hil zutena, bertako ikastetxeko zuzendaria zelarik. Beste alde batetik, Rafaela de Ybarra dohatsua, eskolako fundatzailearen biloba, bere karitate ekintzengatik Bilbo osoan ezaguna, Ikastetxeaz arduratu zen bere aita hil ondoren.

Garai latz batera heldu gara eta eragina izan zuen gure ikastetxetan, baina beste lekuetan bezala. Anaiek abitua erabiltzeari utzi zioten, gizon arrunt gisa janzten ziren eta x jauna izatera pasatuko dira. Gerraren hasierak egoera gori-gori jarri zuen. Santiago Apóstol ikastetxeak egoera larriagoa pairatu behar izan zuen, nahiz eta oso azkar utzi zitzaion Euzko Alderdi Jeltzaleari ospitale gisa erabiltzeko. Anaiek ikastetxea utzi behar izan zuten eta pentsioetan eta lagunen etxeetan bizi behar izan zuten, baten bat atxilotua ere egin zuten.

Deustuko ikastetxeak klaseekin jarraitu zuen 1937ko urtarrilera arte. 1936ko Gabon-gauean ikastetxeko kaperan leku desberdinetatik sakabanaturik zeuden 29 anai elkartu ziren Oilar Meza ospatzeko. Kroniken arabera, hogeiren bat auzokidek ere beraiekin bat egin zuten. 1937ko otsailaren 10ean, Anaiek Ikastetxea utzi behar izan zuten eta Rochat etxera bizitzera joan ziren, Botika Zaharrea. Ikastetxean klaserik eman ezinean, haietariko bik ortua zaintzeari ekin zioten, beste batzuk klase partikularrak hasi ziren ematen eta beste bi Murgiara joan ziren bertako parrokoak deiturik, parrokiako eskolan aritzeko. Lau hilabetez egin zuten. Arriskuaz bakarrik hitz egiten da Francoren armada Bilbon sartzeko egun batzuk falta zirenean. Nahiz eta honen sarrera ekainean gertatu, ikastetxea ez zuten itzuli udaren amaiera arte, baina urrian hasi ziren berriz eskolak.

Aro berri baten hasiera izan zen. Ikuspegi berriak, ez beti errazak. Berreraikuntza eta gabezia garaiak ziren. Deustukoa bezalako ikastetxeentzat, doakotasun osoari eutsi nahian, fondoetatik jasotako diruaren bidez mantentzen zirenak, oso jarrera arriskutsua zen. Gobernuaren aldetik, eta epe luze batez, ezin zen inolako diru-languntzarik espero. Egoera honetan, 1942an beharrezko bihurtu zen Ybarra familia eta Anaien arteko akordioa.

1950-51 ikasturtea berezia izan zen Anaientzat: 300 betetzen ziren San Joan Bautista La Salleko jaio zenetik. Ekitaldi erlijioso, kultural eta jai-giroko egin ziren salletar geografian zehar. Bilbon esanahi berezia izan zuen Santiago Apóstol ikastetxeko eliza berriaren inaugurazio ekitaldiak. 2.400 lagunentzako lekua izanik, hiriko elizarik handiena zen. La Salleko Nagusi Orokorrak parte hartu zuen elizkizun horretan eta zezen-plazan egin zen jaialdi gimnastikoaren buru izan zen.

50. hamarkadan, Deustuko Ikastetxeak eraikin berri bat eraikiko egoitza zaharrari eta 30. hamarkadan eraikitakoei gehituko zaiena. Hamarkada hau, eskola arloan, egokitze aroa izan zen; izan ere, gurasoen eskaerei erantzunez, Batxilergoa ezarriko da, irakaskuntza osoa eskainiz: Lehen Hezkuntza eta Batxilergoa. Azken hau ordaindu beharrekoa izanik, Ikastetxearen hasieratik jarritako doakotasuna zalantzan zegoen. Hori dela eta, 1954an beste itun berri sinatu zen Ybarra familiarekin. Itun horretan zehaztu egiten da eskola poztu batzuek doakoak izan beharko dutela, Santiago Apóstol Ikastetxea postu hauetariko batzuen finantziarioz arduratuko zelarik. Itun honetan ere, Ybarra sendiak ikastetxearen kudeaketa orokorra Anaiei uzten die, eraikin eta orubeen jabetza gordetzen bazuen ere.

Lanak aipatu ditugunez, azpimarratzekoa da 1961ean Santiago Apóstol Ikastetxeko Areto Nagusiaren eraikuntza. Elizaren azpian kokaturik, honen forma bera zeukan. Bertan 1.400 jesarleku zeuden. Bertan egiten ziren igandeetako zinema saioak, hitzaldiak, kontzertua eta antzezpenak garai hartako Bilboko bizitza kulturean sona handikoak izan ziren.

Urte hauetan guztietan zehar, ikastetxe biek arreta berezia jarri zioten klaseko jarduerarekin batera beste ekimen multzo handi bati: ekimen erlijiosoak, kulturalak, artistikoak eta kirol munduari lotuak. Ikasle ohien eta guraso elkarteek indar handia izan zuten. Hauetan oinarriturik beste elkarte batzuk sortu ziren. 1948an Santiago Apóstol Ikastetxean *Cofradía Penitencial del Apóstol Santiago* izeneko anaidi erlijiosoa sortu zen, gaur egun bizirik dirauena, baina Ikastetxearekin inolako harremanik gabe. Kirol arloan, ezin dugu ahaztu Santiago Apóstol-en saskibaloiak izan zuen garapena eta Deustuko ikastetxean eskubaloiak. Urte hauetan ere, ikasle kopuru handi bate apaizgoa eta bizitza erlijiosoa aukeratu zuen. Deustuko ikastetxearekin batera, Santiago Apóstol eta Patronatua kontuan hartuta, gaur egun hogeita hamalau anai ikastetxe hauetako ikasle ohiak dira. Hirurogei eta hirurogeita hamargarren hamarkadetan Deustuko ikastetxean bultzada handia eman zitzairen euskera eta euskal kulturari. Bertan sortuko da, besteak beste “Bihotz Alai” dantza taldea.

Eskola argitalpenen artean, aipamen merezia dute “*Memoria Escolar*” eta “*Enlace colegial*” izenekoak. Argitalpen hauek balio handikoak izan ziren zintzotasun eta xehetasunez Ikastetxeko eguneroko historia jasotzeko.

70. hamarkadan, anaiak beren ekimen kopuru eta tamainak berraztertu zituzten. Azterketa honetatik, Deustuko eta Santiago Apóstol ikastetxeak bateratzeko erabakia hartu zen, ez eztabaida handiak sortu gabe. Non kokatu ikastetxe berria? Hasiera- hasieratik argi geratu zen ez zela izango Licenciado Pozako orubean; izan ere, ez zen jotzen oso egokia etorkizunari begira. Bi aukera zeuden: lehena, Txorierra aldean, Derion zeuden orube batzuetan, Santiago Apóstol Ikastetxeak erosiak eta nahiko ikusgarria zen erakin bat egiteko proiektua zuena; bigarrena, gero nagusitu zena, “Barbarako” izeneko orubeak erabiltzea. Orube hauek Deustuko ikastetxearen ondoan zeuden eta anaiak erosi zituzten 1943an, horretarako Ybarra familiak 1942an lankidetzat ituna sinatzean emandako dirua erabiliz. Aldaketa honekin Ikastetxea hiru eraikinez osatuta egongo da, bat ikastetxe zaharra eta beste biak, OHO eta BBBrako, Ispizua arkitektoek, Santiago Apóstol ikastetxearekin lotura estuak zituen, Pedro Ispizua jaunaren semeek pentsatutakoak. 1975ean hasi zen erabiltzeko OHOrako eraikina eta 1976an BBBrakoa, honela Deusturako aldaketa osoa burutuz.

Funtzionamendu egokirako, Ikastetxea bitan erdibitu zen, alde batetik OHOk ikastetxea, geroago Haur Eskola ere izango zuena, “La Salle-Nuestra Señora del Rosario” izena hartu zuena; eta bestetik, BBB ikastetxea, “La Salle-Santiago Apóstol” izena hartuko zuena. Bateratze prozesua ez zen egin arazo eta tentsiorik gabe, baina laster ekin zitzaion bide berriari. 1979an beste aldaketa nabarmena gertatu zen, BBBko Ikastetxea misto bihurtu zen, geroago beste mailetara ere zabaldutako jarrera izan zena.

1987an, Deustura “Nuestra Señora del Rosario” eskolaz arduratzeko Anaiak heldu zirenetik lehen mendeurrenaren ospakizun alaia egin zen. Abenduko 8 eta 9an egin ziren ospakizunik nagusienak, bertan Anai Nagusi Orokorra, Gotzain jauna, Alkate jauna eta Ahaldu Nagusia izan zirelarik. Ospakizun hau zela eta, Emilio de Ybarra jaunari, Fundazioaren presidentea denari, La Salle Anaidiaren afiliazio agiria eman zitzaion.

Mendeurren honen ospakizunaren ondorio gisa, “**Deustuko Erribera**” ikastetxea sortu zen, Deustuko erriberako San Pablo parrokiaren ondoan, zailtasunak dituzten nerabeei heziketa emateko. Era berean 1989an, Ikastetxean beste hezkuntza maila bat gehitu zen

“Helduen Eskola Iraunkorra”, hain zuzen ere, lehenago hasitako eskola agiria lortzeko ikastaroei babesa ematen ziena. Zoritxarrez, eta arrazoi desberdin batzuk direla medio, bi ekimen hauek, dagoeneko, desagertu dira.

1996ko hezkuntza arloko legediaren aldaketek Ikastetxeari eraldaketa eta lan batzuk ekarri zizkioten: Haur Hezkuntza, lehenago Deustuko eskolaren eraikinean zegoena, OHOk eraikinerara pasatu zen; azken honek (pisu bat gehiagorekin) aldaketa batzuk izan zituen: Haur eta Lehen Hezkuntzarako egoitza bihurtu zen; BBBko egoitzan DBH kokatu zen eta eraikin zaharrean, beharrezko lanak egin ondoren, Batxilergoaren egoitza bihurtu zen.

Aipatutako gertaera aipagarri hauekin batera, Ikastetxeak, bere eguneroko jardueran, egokitu ditu garai berrietara bere tradizio hezitzailea eta Nuestra Señora del Rosario eskolatik eta Santiago Apóstol ikastetxetik jasotako lan ona egiteko modua.

Gaur arteko historia honen amaiera ezin hobe moduan, Ikastetxeari gehitu zaion azken eraikina dugu: 2004ko irailean eskola kiroldegiaren inaugurazio ekitaldia egin zen, inguruan egiten ari ziren herri lanak eta “Fundacion Ybarra”, Ikastetxea eta La Salle Anaidiaren arteko lankidetzak aprobetxatuz.